II. ATALA

## BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

### Portugaleteko Udala

**Negozioa Portugaleteko Historiagunean kokaturik duten enpresetarako dirulaguntza berezien udal egitarauaren 2020ko oinarri-arauak eta deialdia onestea.**

Portugaleteko Udalbatzak 2020ko ekainaren 9an eginiko ezohiko bilkuran oinarri-arauok eta deialdi hau onetsi zituen:

**NEGOZIOA PORTUGALETEKO HISTORIAGUNEAN KOKATURIK DUTEN ENPRESETARAKO DIRULAGUNTZA BEREZIEN UDAL EGITARAUAREN 2020KO OINARRI-ARAUAK ETA DEIALDIA ONESTEA**

**1. Xedea**

Oinarri-arauon xedea da enpresei itzuli beharrik gabeko dirulaguntza zuzenak arautzea eta deialdia egitea. Enpresa horiek kokapena edo enpresako establezimendua 2019ko abenduaren 1etik 2020ko azaroaren 30era bitartekoa izan behar dute, kokapena Portugaleteko Historiagunean delarik (Coscojales kalea, Atarazanas kalea, Manuel Calvo kalea, Santa Clara zeharkalea, Salcedo kalea, Ranchería plaza, Solar plaza, Salazar dorrea, Santa Maria kalea, Víctor Chávarri kalea, Casilda Iturrizar kalea eta M.ª Díaz de Haro kalea).

**2. Onuradunak, enpresen betekizunak eta negozioaren kokaleku fisikoa**

Oinarri-arauotako dirulaguntzen onuradunak honako enpresa hauek izan daitezke: Portugaleteko Historiagunean edota aurreko atalean ezarritako kaleetan kokaleku berria duten enpresak edota dagoeneko eratuta daudenak, eratu den forma juridikoa dena delarik ere (Diru-Laguntzei buruzko Legearen 11.3 artikuluaren arabera), baldin eta, Diru-Laguntzei buruzko Legearen 13. artikuluak dakartzan betekizunak betetzen badira deialdi honen oinarri-arauetan baita establezimenduak irekitzeko Udalaren arautegian ere.

**3. Dirulaguntzen zenbatekoa**

Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak dira hauek, enpresa berriak edo horien establezimendu bat martxan eta funtzionamenduan jartzeko; jendearentzat irekia izan behar du eta Portugaleteko Historiagunean ezarri behar da, zehatz-mehatz arautegi honetako lehen artikuluak dakarren zerrendako kaleetan. Dirulaguntza bakoitzaren zenbatekoa izango da negozioa hartzen duen lokalaren urteko errrentamenduaren zenbatekoaren % 50ekoa, eta gehienez lau mila eta berrehun eurokoa (4.200,00 euro), enpresa jarduenan dagoen lehen urterako.

Halaber, diruz lagundua izango da dirulaguntzaren gehienezko zenbatekoa lau mila eta berrehun eurokoa (4.200,00 euro), baldin eta enpresa edo haren establezimendua martxan jartzeak berez badakar Historiaguneko lokalaren jabetza eskuratu beharra, betiere Historiagunean kokaturik oinarri-arauetako xedean agertzen diren kaleen zerrendari jarraiki.

**4. Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna**

Deialdi honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste organismo publiko zein pribatu batzuek xede berberako ematen dituzten beste dirulaguntza batzuekin.

Programa honetako dirulaguntzek une oro beteko dituzte, batetik, 1998/2006 Araudia (EE), 2006ko abenduaren 15eko Batzordearena, Europako Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratua 2006ko abenduaren 28an, EEko Tratatuaren 87. eta 88. artikululuak «minimis» dirulaguntzei aplikatzeari buruzkoa, eta bestetik, araudi horri egingo zaizkion aldaketa guztiak ere bai. Europako Batasunak ezarritakoaren arabera, enpresa zehatz bati eman beharreko «minimis» dirulaguntza osoa gehienez 200.000 eurokoa izango

eek: BAO-2020a119-(II-1853)

dela hiru ekitaldi fiskaleko edozein alditan. Muga hori beti ere aplikatuko da, «minimis» dirulaguntzaren zer-nolakoa edo helburua dena delarik ere. Muga hori gainditzen bada, ematen den dirulaguntzaren murriztu egingo da, soberakinaren kopuruaren arabera.

**5. Aurrekontuaren erabilgarritasuna**

Oinarri-arauetako dirulaguntzak 2020ko aurrekontuko 11.2410.48101 diru-sailaren kargura finantzatuko dira. Diru-sail horrek «Alde Zaharreko lonjak. Dirulaguntzak ekintzaileei» du izena eta 25.000,00 euro du.

**6. Eskaerak aurkezteko epea eta haien lehentasun-ordena**

Eskaerak aurkezteko epea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean oinarri-arauak argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko da. 2020ko abenduaren 10ean amaituko da.

Dirulaguntzarako eskaerak ebatziko dira eskaeren erregistro ordena zorrotzari jarraiki, balioesteko irizpidea haiek erregistratuak izan ziren sarrera-data eta ordua izanik; betiere behar bezala beteta badaude eta espedientea osorik badago, horretarako esleitutako aurrekontuko kredituaren mugaraino.

**7. Eskaerak aurkeztu**

Eskaerak, nahitaez aurkeztu beharreko agiriekin batera, Udalaren Erregistro Orokorrean edo Herritarren Informaziorako Bulegoan aurkeztu beharko dira. Eskaerok Enplegu eta Ekonomi Sustapen Sailari egongo dira zuzenduta (I. eranskina). Eskaera aukezteak oinarri-arauok onartzea dakar berekin.

Dirulaguntzen eskaerek izaera orokorra izango dute, aurreko atalean ezarritako eskaerak aurkezteko epe-mugaren barruan.

Kontsultarik izanez gero, Portugaleteko Udaleko Ekonomi- eta Enplegu Sustapenerako Saileko telefonora (944 729 320) deitu ahal da. Bestela, posta elektronikoz ere badago argitzerik empleo@portugalete.org helbide elektronikora mezua bidalita.

**8. Nahitaez aurkeztu beharreko agiriak**

Eskaerak egiteko, deialdi honetako eranskinek dakarten eredu normalizatua erabiliko da. Eskaera enpresa zein entitatearen ordezkariak izenpetu beharko du eta agiri hauekin batera aurkeztu beharko da:

— Enpresa kokatzeko lokala errentamenduan edo jabetzan hartu izanaren egiaztagiriaren kopia.
— Diruz lagunduriko kokagunean jardueraren hasieraren egiaztagiria, indarreko legeriarekin bat etorriz.
— Eskatzailea pertsona fisikoa bada, NANaren fotokopia.
— Eskatzailea pertsona juridikoa bada, identifikazio fiskaleko txartelaren kopia eta eskatzailearen NAN eta ordezkaritza-boterea.
— Pertsona juridikoak badira, enpresa eratzeko eskrituren fotokopia, horren ondorengo aldaketak ere adierazi behar direlarik, eta dagokion erregistroko inskripzioa.
— Eskatzailea nortasun juridiko propiorik gabeko pertsona bada (oinarri-arauotako 2. artikulua), Foru Ogasunak zigilaturiko kontratu pribatua ere aurkeztuko da.
— Ekonomi jardueren gaineko zergako alta-bajen ziurtagiria, Foru Ogasunak egina.
— Enpresa zein entitatea Gizarte Segurantzan alta emanda dagoelako agiriaren kopia.
— Foru Ogasunaren agiri eguneratua, enpresa zein entitate eskatzaileak tributu beharrak egunean dituela egiaztatzeko.
— Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren agiri eguneratua, enpresa zein entitate eskatzaileak beharrak egunean dituela egiaztatzeko.
— Hirugarrenen datuen alta edo aldaketa izeneko agiria, enpresa zein entitate eskatzaileak eta banku zein aurrezki kutxak izenpetuta; bankuaren datuak agertzeko inprimakia da, dirulaguntzaren zenbatekoa helbideratu ahal izateko; inprimaki eredu normalizatua dago.

eek: BAO-2020a119-(II-1853)

— Dirua itzuli beharretan sartuta ez egotea, ez eta DiruLaguntzei buruzko Lege Orokorreko 13. artikuluko debekuetan ere.

Eskatzaileak eskaerako daturen bat faltsutuko balu, dagokion zigor jaurpidea aplikatuko litzaioke.

**9. Akatsak zuzendu**

Dirulaguntzaren eskaerak deialdi honetako eskakizunak betetzen ez baditu edo eskatutako agiriekin batera aurkezten ez bada, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legeko 68. artikuluarekin bat etorriz, errekerimendua egingo zaie interesatuei 10 laneguneko epean akatsak zuzen ditzaten edo nahitaezko agiriak ekar ditzaten; halaber jakinaraziko zaie, horrela egin ezean, ulertuko dela uko egin diotela eskaerari eta eskaera artxiboratu egingo dela, beste izapiderik egin gabe, 21. atalak aipatzen dituen ondorioak sortzen direlarik.

Eskaera ez da egintzat joko, datu guztiak behar bezala beteta izan arte eta espedientea osorik egon arte (8 eta 9. artikuluak).

**10. Eskaerak aztertu eta ebaluatu**

Portugaleteko Udalaren Enplegu eta Ekonomi Sustapen Sailak egiaztatu eta ebaluatuko ditu aurkezturiko eskaerak. Orobat, eskaera ondo ulertu eta ebaluatze aldera beharrezkotzat jotzen duen edozein agiri edo informazio osagarri eskatu ahalko du sail horrek.

Behin ezarritako betekizunak bete direla egiaztatuta, ebazpena egiteko proposamena organo emaileari egingo dio berariaz adierazita eskaturiko dirulaguntza onetsi ala ezesteaz. Halaber, zenbatekoa ere adieraziko du.

**11. Dirulaguntzen emakidaren ebazpena**

Aurreko atalean aipaturiko proposamena kontuan hartuta, organo emaileak, hau da, Portugaleteko alkateak ebazpena eman beharko du 2020ko abenduaren 30a baino lehen.

Dirulaguntzaren emakidaren ebazpenak ekarriko du onuradun bakoitzari dagokion norbanakoaren zenbatekoa.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluarekin bat etorriz, behin ebazpena emateko epe aurreikusia beteta, enpresari edo entitate interesdunari jakinarazpenik egiten ez bazaio, eskaturiko diru-laguntza ezetsi dela ulertuko da.

Interesdunek edo entitate interesdunek prozeduraren ebazpenaren berri izango dute norbanako jakinarazpenaren bidez Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41.1 artikuluarekin bat etorriz.

Dirulaguntzen Araudiaren (RD887/2006) 63.3 artikuluari jarraiki, onuraduna izatea lortze aldera deialdiaren baldintzak beteta izan arren, deialdi honetako kreditu ezarriaren gehienezko zenbatekoa gainezkatzeagatik ezetsi dituzten eskaeren hurrenkera ordenatua ebazpenean agertu beharko da. Ebazpen berri baten bidez ezetsitako eskaeren hurrenkeraren lehentasunezko ordenari jarraiki, dirulaguntza berriak eman ahalko dira, onuradunen batek berariaz uko egindako kreditu jaulkia amaitu arte.

Ondorio hauetarako, oinarri-arauotako betekizunak ez betetzeak berariaz uko egitea dakar berekin.

**12. Enpresa onuradunen betebeharrak**

Dirulaguntza hauek jasotzen dituzten enpresek hauexek bete beharko dituzte:

a) Emandako dirulaguntza onetsi. Honi dagokionez, enpresa onuradunek, diru-laguntzaren emakidaren jakinarazpena jaso eta handik hamabost egunera dirulaguntzari, berariaz eta idatziz, uko egiten ez badiote, enpresak onetsi duela ulertuko da.

b) Enpresak Urtebetez gutxienez altan jarraitzea dirulaguntzaren emakida- ren ebazpen onetsiaren datatik aurrera.

eek: BAO-2020a119-(II-1853)

c) Portugaleteko Udalaren Enplegu eta Ekonomi Sustapen Sailari jakinarazi behar dio dirulaguntza jasotzeko kontuan hartua izan den edozein inguruabar objetibo zein subjetiboren aldaketa.

d) Portugaleteko Udalaren Enplegu eta Ekonomi Sustapen Sailari aurkeztu beharko dio dirulaguntza aztertu eta ebaluatze aldera nahitaezkoa den edozein informazio edo agiri osagarri.

e) Oinarri-arauok ez betetzeagatik, jasotako dirulaguntzetako funtsak itzuli beharko ditu, deialdi honek xedatzen duenarekin bat etorriz.

f) Diruz lagundutako epean enpresak alta eginda egon behar du.

**13. Ikuskapena**

Diruz lagunduriko ekintzei dagokielarik, egoki deritzeten ikuskapenak eta egiaztapenak egin ahalko dira. Horiek horrela, enpresa onuradunek eskatzen zaien informazio osagarria aurkeztu beharko dute.

**14. Dirulaguntzaren abonua**

Dirulaguntzen abonua bi epetan egingo da, ondoren azaltzen den bezala:

1. Dirulaguntzaren emakidaren unean, Udalak emandako dirulaguntzaren % 90 ordainduko da; Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 34.4 artikuluak dioenarekin bat etorriz, esleipendunak aurretik onartuta, oinarri-arauotako 12.a artikuluak aipatzen duen hamabost (15) eguneko epea beteta.
2. Gainerako %10 abonatuko zaio emandako dirulaguntzaren justifikazioari baldin eta oinarri-arauotako 17. artikuluak zehaztuta dakarren justifikazio-dokumentazioa aurkezten bada.

Enpresa eskatzaileak nahitaezko agirietako daturen bat faltsutuko balu, dagokion erregimen zigortzailearen mende egon liteke.

**15. Dirulaguntzak argitaratu**

Behin eskaerak aurkezteko epea amaituta eta berauek ebatzita, argitaratu egingo dira, bateko, azaroaren 17ko Diru-Laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 18. artikuluak dioena eta besteko, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 30. artikuluak onetsitako Diru-Laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren Araudiak dioena bete nahian. Halaber, gardentasun-betebeharrei dagokienez, Euskadiko Toki-Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 55.i) artikuluak dioenarekin bat etorrita, emandako dirulaguntzen zerrenda argitaratuko da zenbatekoa, xedea eta onuraduna agertu behar direlarik.

**16. Dirulaguntzaren betekizunak aldatu**

Dirulaguntza emateko betekizunak aldatzeak emakidaren ebazpena ere alda dezake baldin eta dirulaguntzaren onuraduna izateko oinarri-arau hauek ezartzen dituzten gutxieneko betekizunak betetzen badira. Ondorio horietarako, aldaketa-ebazpena emango da zeinetan emandako dirulaguntzen zenbatekoak birdoituko baitira.

**17. Dirulaguntzak zuritu eta itzuli**

Diruz lagundutako urteko aldia amaitzen denetik zenbatzen hasita gehienez hilabeteko epean (12.b artikuluak aipatzen duen dirulaguntzaren emakidaren ebazpen onetsitik zenbatzen hasita urtebeteko epea), enpresa onuradunek zuritzeko agiriok aurkeztu beharko dituzte:

— Ekonomi jardueren gaineko zergako alta-bajen ziurtagiria, Foru-Ogasunak emandakoa. Ziurtagirian jardueran altan jarraitzen duela adierazi beharko da.

— Diruz lagunduriko epean Historiaguneko hasierako kokalekuan darraielako egiaztagiria.

— Diruz lagunduriko lokalaren urteko alokairuaren zenbatekoaren ordainketa egiaztatzeko eta zuritzeko agiriak (fakturak, ordainagariak…).

eek: BAO-2020a119-(II-1853)

— Foru-Ogasunak gaurkoturiko ziurtagiria, egiaztatzeko dirulaguntza eskatu duen enpresa edo entitate eskatzaileak tributu-betebeharrak ordainduta dituela.
— Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrak gaurkoturiko ziurtagiria egiaztatzeko enpresak edo entitateak bere betebeharrak ordainduta dituela.

Bai jasotako dirulaguntzak bai dirulaguntza ordaintzeko unetik dagozkion legezko interesak itzuli beharko dira baldin eta onuradunek deialdi honetan, emakidaren ebazpenean eta aplikatu beharreko arauetan ere betekizunak betetzen ez badituzte. Horretaz gain, baldintzak ez betetzeak ekarri ahal dizkion ondorio guztiak gertagarri dira.

Dirulaguntzak itzultzeko balizko egoerak honako hauek dira:

— Dirulaguntza jasotzea baldintzak bete gabe.
— Ez erabiltzea dirulaguntza eskatutako helbururako.
— Negozioa martxan jartzeko betebeharra ez betetzea dirulaguntzaren emakidaren ebazpen onetsiaren datatik zenbatzen hasita urtebeteko epean.
— Zuritzeko betebeharra edo ataletako bat ez betetzea.
— Emakida dela eta, onuradunei ezarritako baldintzak ez betetzea.
— Kontrol jarduketei uko egitea edo eragozpenak jartzea.
— Dirulaguntzak gainezkatzea eginiko jardueraren kostua.

**18. Erregimen osagarria**

Oinarri-arau hauek eta deialdi honek aurreikusten ez dutenari legeok aplikatuko zaizkio: azaroaren 17ko DiruLaguntzen 38/2003 Lege Orokorra eta berau garatzeko Araudia eta urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legea.

**19. Datu pertsonalak babestu**

Portugaleteko Udalak, Datu Pertsonalak Babesteko arautegi aplikagarria bete nahian eta eskubide digitalak bermatu nahian, jakinarazten du eskatzaileen datu pertsonalak automatikoki tratatuko dituela eta Portugaleteko Udalaren Informazio Sisteman sartuko dituela. Datuon tratamenduaren xedea erlazionaturik dago zuzenean laguntza-programan izapidetzeko eskabideen kudeaketarekin.

**20. Bitarteko ekonomikoak**

Dirulaguntza hauen funtsak 2020ko aurrekontuko 11.2410.48101 gastuaren aplikazioari esleitutako eskuragarritasunera mugaturik daude.

**21. Azken Xedapena**

1. Dirulaguntzen oinarri-arauak eta deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik zenbatzen hasita egongo dira indarrean.

2. Enpresa interesdunek eskaera aurkezteak oinarri-arauak erabat onartzea dakar berekin.

Portugaleten, 2020ko ekainaren 12an.—Alkatea, Mikel Torres Lorenzo

eek: BAO-2020a119-(II-1853)

I. ERANSKINA / ANEXO I

## ESKAERAREN EREDU NORMALIZATUA
## MODELO DE SOLICITUD NORMALIZADO

### NEGOZIOA PORTUGALETEKO HISTORIAGUNEAN KOKATURIK DUTEN ENPRESETARAKO DIRU-LAGUNTZA BEREZIEN ESKAERA
### SOLICITUD DE AYUDAS ECONÓMICAS EXTRAORDINARIAS DIRIGIDAS A EMPRESAS CON UBICACIÓN DE NEGOCIO EN EL CASCO HISTÓRICO DE PORTUGALETE

| | |
|---|---|
| Izen-abizenak / Nombre y apellidos | NAN / DNI |
| Honen ordezkaritzan dihardularik / En representación de | |
| Enpresa zein entitatearen egoitza / Razón social de la empresa o entidad | |
| Merkataritza izena / Nombre comercial | IFZ-IFK / NIF-CIF |

Portugaleteko Udalak Portugaleteko Historiagunean enpresa bera edo haren establezimendu bat kokatu nahi duten enpresak diruz laguntzeko funts galdurako laguntzak zuzen emateko deiarekin bat etorriz, hauxe

ADIERAZTEN DU:

1. Ezagutu eta onartu egiten dituela diru-laguntzon deialdiko baldintzak eta betebeharrak eta egiaztatu egiten duela enpresak zein entitateak eskaera-inprimakietan adierazitako datuak.

2. Enpresa edo horren establezimendu bat Portugaleteko Historiagunean kokatu duela.

3. Jasotzen duen diru-laguntza baliatuz egiten dituen ordainketak eta gastuak egiaztatzeko agiriak, behar izanez gero agiri elektronikoak ere barne daudelarik, entitate onuradunak gordeko dituela legeak ezartzen duen denbora guztian, hau da, Administrazioak egiaztatu eta zaintzeko jarduketak egin behar dituen bitartean.

4. Portugaleteko Udalak, Datu Pertsonalak Babesteko arautegi aplikagarria bete nahian eta eskubide digitalak bermatu nahian, jakinarazten du eskatzaileen datu pertsonalak automatikoki tratatuko dituela eta Portugaleteko Udalaren Informazio Sisteman sartuko dituela. Datuon tratamenduaren xedea erlazionaturik dago zuzenean laguntza-programan izapidetzeko eskabideen kudeaketarekin. Datu pertsonalak zabalkunde orokorreko hedabideetan (arautegi aplikagarriarekin bat etorriz) argitaratuko dira. Halaber, Portugaleteko Udalak bere datu pertsonalak gordeko ditu harreman juridikoak iraun bitartean eta, behin harreman hori bukaturik, betebehar legezkoak betetzeko beharrezko epeetan.

Conforme a la convocatoria de ayudas del Ayuntamiento de Portugalete para subvencionar a las empresas que ubiquen la empresa o un establecimiento de la misma, en el Casco Histórico de Portugalete,

MANIFIESTA:

1. Que conoce y acepta las condiciones y obligaciones establecidas en la convocatoria de las referidas ayudas y certifica la veracidad de los datos consignados por la empresa o entidad en sus formularios de solicitud.

2. La ubicación de una empresa o un establecimiento de la misma en el Casco Histórico de Portugalete.

3. Que la documentación acreditativa de los gastos y pagos efectuados con cargo a la subvención recibida, incluyendo en su caso los documentos electrónicos, obrarán en poder de esta entidad beneficiaria durante el periodo legal establecido, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control de la Administración correspondiente.

4. En cumplimiento de la normativa aplicable en materia de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, acepta que sus datos personales podrán ser objeto de tratamiento automatizado e incorporados al Sistema de Información del Ayuntamiento de Portugalete. La finalidad del tratamiento de dichos datos está directamente relacionada con la gestión de las solicitudes a tramitar en el programa de ayudas y serán publicados en medios de difusión general (en cumplimiento de la normativa aplicable). Se comunica que el Ayuntamiento de Portugalete conservará sus datos personales durante la relación jurídica y, una vez finalice esta, durante los plazos necesarios para el cumplimiento de obligaciones legales.

eek: BAO-2020a119-(II-1853)

Interesdunak bere datu pertsonalen irispidea, datuak zuzentzeko, ezerezteko, tratamendua mugatzeko, aurka egiteko edo transferitzeko eska dezake. Horretarako, idatzizko eskaera bidali beharko dio PORTUGALETEKO UDALARI (IFK: P4809100C; helbidea: Solar plaza z. g. 48920 Portugalete (Bizkaia). Nolanahi ere, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari ere egin diezaioke erreklamazioa (Beato Tomás de Zumárraga kalea 71, 3, 01008-Vitoria-Gasteiz).

Hori guztia dela eta, eskatu egiten dio Portugaleteko Udaleko Ekonomia Sustapen eta Enplegu Sailari onar dezala eskaera eta eman diezaiola dagokion diru-laguntza, goian aipatutako deialdiarekin bat etorriz.

Podrá solicitar el acceso a sus datos personales, la rectificación, supresión, la limitación del tratamiento, oposición o la portabilidad de sus datos personales enviando una solicitud por escrito dirigida a AYUNTAMIENTO DE PORTUGALETE., con CIF P4809100C, domicilio en la Plaza Del Solar s/n, 48920-Portugalete (Bizkaia). En todo caso, puede presentar una reclamación ante la Agencia Vasca de Protección de Datos, calle Beato Tomás de Zumárraga, 71, 3, 01008-Vitoria- Gasteiz.

Por todo lo cual, solicita al Ayuntamiento de Portugalete, Departamento de Promoción Económica y Empleo que sea aceptada su solicitud y se le conceda la ayuda que corresponda conforme a la convocatoria arriba indicada.

Portugalete(n), ..........................................

Legezko ordezkariaren izenpea eta enpresa zein entitatearen zigilua
Firma del/la representante legal y sello de la empresa o entidad

Sarrerako zigilua / Sello de entrada

eek: BAO-2020a119-(II-1853)

**NEGOZIOA PORTUGALETEKO HISTORIAGUNEAN KOKATURIK DUTEN ENPRESETARAKO DIRULAGUNTZA BEREZIEN ESKAERA**
**SOLICITUD DE AYUDAS ECONÓMICAS EXTRAORDINARIAS DIRIGIDAS A EMPRESAS CON UBICACIÓN DE NEGOCIO EN EL CASCO HISTÓRICO DE PORTUGALETE**

### Enpresa zein entitatearen egoitza / Domicilio social de la empresa o entidad

| | | |
|---|---|---|
| Kalea eta zk. / Calle y número | | |
| Udalerria / Municipio | PK / CP | Telefonoa / Teléfono |
| @ | Fax | http:// |

### Enpresa zein entitatearen egoitza fiskala / Domicilio fiscal de la empresa o entidad

| | | |
|---|---|---|
| Kalea eta zk. / Calle y número | | |
| Udalerria / Municipio | PK / CP | Telefonoa / Teléfono |
| @ | Fax | http:// |

### Jakinarazteko bidea (markatu hautatutakoa) / Forma de notificación (señale la elegida)

☐ Posta elektronikoa. Gomendatua. Ezinbestez egin beharko duzu jakinarazpena hartu izanaren berri ematea.
Correo electrónico. Recomendada. Es imprescindible realizar acuse de recibo de la notificación enviada.
Helbidea / Dirección: ..........................@..........................

☐ Posta arrunta / Correo ordinario

| | |
|---|---|
| Izen-abizenak / Nombre y apellidos | |
| Kalea eta zk. / Calle y número | Udalerria / Municipio |

### Garatu beharreko jarduera / Actividad a desarrollar

| | |
|---|---|
| EJZren printzipala / IAE principal | EJZko altaren eguna / Fecha de alta en IAE |
| | Diruz lagunduriko kokagunean jardueraren hasiera-data (Erantsi egiaztagiria)<br>Fecha de inicio de actividad en la ubicación subvencionada (Adjuntar documento) |
| Deskribapena / Descripción | |

eek: BAO-2020a119-(II-1853)

**Bazkideak zein sustatzaileak / Socios o promotores**

| Izen-abizenak / Nombre y apellidos | NAN / DNI |
|---|---|
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |

| Egindako inbertsioa / Inversión realizada | Finkoa / Fijo | Aldakorra / Variable |
|---|---|---|
| Zenbatekoa, BEZ kenduta / Importe sin IVA | | |
| Finantzazioa Berezkoa Besteena / Financiación Propia (euros) Ajena (euros) | | |
| Banketxea zein aurrezki kutxa / Entidad bancaria | | |

eek: BAO-2020a119-(II-1853)

**NEGOZIOA PORTUGALETEKO HISTORIAGUNEAN KOKATURIK DUTEN ENPRESETARAKO DIRULAGUNTZA BEREZIEN ESKAERA**
**SOLICITUD DE AYUDAS ECONÓMICAS EXTRAORDINARIAS DIRIGIDAS A EMPRESAS CON UBICACIÓN DE NEGOCIO EN EL CASCO HISTÓRICO DE PORTUGALETE**

## Zinpeko adierazpen ardurazkoa / Declaración jurada y responsable

| Izen-abizenak / Nombre y apellidos | NAN / DNI |
|---|---|
| Honen ordezkaritzan dihardularik / En representación de | |
| Enpresa zein entitatearen egoitza / Razón social de la empresa o entidad | |
| Merkataritza izena / Nombre comercial | IFZ-IFK / NIF-CIF |

HAUXE ADIERAZTEN DU / DECLARA QUE:

☐ Ez diotela debekatu herri diru-laguntzak jasotzeko aukera, legea hautsi izateagatik.

☐ No ha sido excluido del acceso a subvenciones públicas por la comisión de infracciones.

☐ «Minimis» araua betetzen duela, Europako Batzordearen 2006ko abenduaren 15eko 1998/2006 Araudiarekin (EE) eta Europako Batasunan indarrean dagoen gainontzeko arauekin ere bat etorriz.

☐ Que cumple la regla de «mínimis», conforme al Reglamento (CE) número 1998/2006 de la Comisión Europea, de 13 de diciembre de 2006, y demás normativa comunitaria vigente.

☐ Eskaera hau ez ezik, gaurko egunera arte inbertsio-proiektu honetarako beste eskaerarik egin duela edota beste dirulaguntzarik jaso duela honako erakunde publiko zein pribatuetan:

☐ Que, además de la presente solicitud de ayuda, ha presentado solicitud y/o ha obtenido ayuda para este proyecto de inversión en las siguientes instituciones públicas o privadas, hasta el día de la fecha:

| Eskaeraren urtea<br>Año de la solicitud | Erakundea<br>Institución | Programa | Eskatutako zenbatekoa<br>Importe solicitado | Emandako diru-laguntza<br>Ayuda concedida |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |

☐ Dirua itzuli beharretan sartuta ez dagoela, ez eta DiruLaguntzei buruzko Lege Orokorreko 13. artikuluko debekuetan ere.

☐ Que no está incurso en obligaciones por reintegro ni en ninguna de las prohibiciones previstas en el artículo 13 de la Ley General de Subvenciones.

eek: BAO-2020a119-(II-1853)

| | |
|---|---|
| Portugaleteko Udalak, Datu Pertsonalak Babesteko arautegi aplikagarria bete nahian eta eskubide digitalak bermatu nahian, jakinarazten du eskatzaileen datu pertsonalak automatikoki tratatuko dituela eta Portugaleteko Udalaren Informazio Sisteman sartuko dituela. Datuon tratamenduaren xedea erlazionaturik dago zuzenean laguntza-programan izapidetzeko eskabideen kudeaketarekin. Datu pertsonalak zabalkunde orokorreko hedabideetan (arautegi aplikagarriarekin bat etorriz) argitaratuko dira. Halaber, jakinarazten da Portugaleteko Udalak bere datu pertsonalak gordeko dituela harreman juridikoak iraun bitartean eta, behin harreman hori bukaturik, betebehar legezkoak betetzeko beharrezko epeetan.<br>Interesdunak bere datu pertsonalen irispidea, datuak zuzentzeko, ezerezteko, tratamendua mugatzeko, aurka egiteko edo transferitzeko eska dezake. Horretarako, idatzizko eskaera bidali beharko dio PORTUGALETEKO UDALARI (IFK: P4809100C; helbidea: Solar plaza z. g. 48920-Portugalete (Bizkaia). Nolanahi ere, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari ere egin diezaioke erreklamazioa (Beato Tomás de Zumárraga kalea, 71, 3, 01008-Vitoria-Gasteiz). | En cumplimiento de la normativa aplicable en materia de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, acepta que sus datos personales podrán ser objeto de tratamiento automatizado e incorporados al Sistema de Información del Ayuntamiento de Portugalete. La finalidad del tratamiento de dichos datos está directamente relacionada con la gestión de las solicitudes a tramitar en el programa de ayudas y serán publicados en medios de difusión general (en cumplimiento de la normativa aplicable). Se comunica que el Ayuntamiento de Portugalete conservará sus datos personales durante la relación jurídica y, una vez finalice esta, durante los plazos necesarios para el cumplimiento de obligaciones legales.<br>Podrá solicitar el acceso a sus datos personales, la rectificación, supresión, la limitación del tratamiento, oposición o la portabilidad de sus datos personales enviando una solicitud por escrito dirigida a AYUNTAMIENTO DE PORTUGALETE., con CIF P4809100C, domicilio en la Plaza Del Solar s/n, 48920-Portugalete (Bizkaia). En todo caso, puede presentar una reclamación ante la Agencia Vasca de Protección de Datos, calle Beato Tomás de Zumárraga, 71, 3, 01008-Vitoria- Gasteiz. |

Bidezko ondorioak sortaraz ditzan jasotzen dut.

Lo que hago constar a los efectos correspondientes.

Portugalete(n), ……………………………………

Izenpea / Firma

eek: BAO-2020a119-(II-1853)

**NEGOZIOA PORTUGALETEKO HISTORIAGUNEAN KOKATURIK DUTEN ENPRESETARAKO DIRULAGUNTZA BEREZIEN ESKAERA**
**SOLICITUD DE AYUDAS ECONÓMICAS EXTRAORDINARIAS DIRIGIDAS A EMPRESAS CON UBICACIÓN DE NEGOCIO EN EL CASCO HISTÓRICO DE PORTUGALETE**

ORDEZKARITZARAKO BAIMENA / AUTORIZACIÓN DE REPRESENTACIÓN

| | |
|---|---|
| Don/Doña / jauna/andrea | NAN / DNI |
| Honen ordezkaritzan diharduelarik / En representación de | |
| Enpresa zein entitatearen egoitza / Razón social de la empresa o entidad | |
| Merkataritza izena / Nombre comercial | IFZ-IFK / NIF-CIF |

BAIMENA EMATEN DIOT HONI / AUTORIZO A

| | | |
|---|---|---|
| Don/Doña | jauna/andrea | NAN DNI |
| Bizilekua / Domicilio | Kalea eta zk. / Calle y número | Udalerria / Municipio |

| | |
|---|---|
| Baimena emandako jaun edo andre horrek doan aurkez diezaion Portugaleteko Udalari negozioa Portugaleteko Historiagunean kokaturik duten enpresetarako diru-laguntza berezien eskaera eta enpresaren izenean jardun dezan, jakinarazpenak jasotzeko. | Para que con carácter gratuito presente ante el Ayuntamiento de Portugalete la solicitud de ayudas económicas extraordinarias a empresas con ubicación de negocio en el Casco Histórico de Portugalete y actúe en nombre de la empresa a efectos de notificaciones. |

baimena emandako jaun edo andre horrek doan aurkez diezaion Portugaleteko Udalari negozioa Portugaleteko Historiagunean kokaturik duten enpresetarako diru-laguntza berezien eskaera eta enpresaren izenean jardun dezan, jakinarazpenak jasotzeko.

Portugaleteko Udalak, Datu Pertsonalak Babesteko arautegi aplikagarria bete nahian eta eskubide digitalak bermatu nahian, jakinarazten du eskatzaileen datu pertsonalak automatikoki tratatuko dituela eta Portugaleteko Udalaren Informazio Sisteman sartuko dituela. Datuon tratamenduaren xedea erlazionaturik dago zuzenean laguntza-programan izapidetzeko eskabideen kudeaketarekin. Datu pertsonalak zabalkunde orokorreko hedabideetan (arautegi aplikagarriarekin bat etorriz) argitaratuko dira. Halaber, Portugaleteko Udalak bere datu pertsonalak gordeko ditu harreman juridikoak iraun bitartean eta, behin harreman hori bukaturik, betebehar legezkoak betetzeko beharrezko epeetan.

Interesdunak bere datu pertsonalen irispidea, datuak zuzentzeko, ezerezteko, tratamendua mugatzeko, aurka egiteko edo transferitzeko eska dezake. Horretarako, idatzizko eskaera bidali beharko dio PORTUGALETEKO UDALARI (IFK: P4809100C; helbidea: Solar plaza z. g. 48920-Portugalete (Bizkaia). Nolanahi ere, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari ere egin diezaioke erreklamazioa (Beato Tomás de Zumárraga kalea, 71, 3, 01008-Vitoria-Gasteiz).

para que con carácter gratuito presente ante el Ayuntamiento de Portugalete la solicitud de ayudas económicas extraordinarias a empresas con ubicación de negocio en el Casco Histórico de Portugalete y actúe en nombre de la empresa a efectos de notificaciones.

En cumplimento de la normativa aplicable en materia de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, acepta que sus datos personales podrán ser objeto de tratamiento automatizado e incorporados al Sistema de Información del Ayuntamiento de Portugalete. La finalidad del tratamiento de dichos datos está directamente relacionada con la gestión de las solicitudes a tramitar en el programa de ayudas y serán publicados en medios de difusión general (en cumplimiento de la normativa aplicable). Se comunica que el Ayuntamiento de Portugalete conservará sus datos personales durante la relación jurídica y, una vez finalice esta, durante los plazos necesarios para el cumplimiento de obligaciones legales.

Podrá solicitar el acceso a sus datos personales, la rectificación, supresión, la limitación del tratamiento, oposición o la portabilidad de sus datos personales enviando una solicitud por escrito dirigida a AYUNTAMIENTO DE PORTUGALETE., con CIF P4809100C, domicilio en la Plaza Del Solar s/n, 48920-Portugalete (Bizkaia). En todo caso, puede presentar una reclamación ante la Agencia Vasca de Protección de Datos, calle Beato Tomás de Zumárraga, 71, 3, 01008-Vitoria-Gasteiz.

Portugalete(n), .........................................

Baimen-emailearen izenpea / Firma de la persona autorizante

eek: BAO-2020a119-(II-1853)

**DATUEN ALTA EDO ALDAKETA / ALTA O MODIFICACIÓN DE DATOS**

**Pertsona edo entitate interesatuaren ezagupenerako datuak**
**Datos identificativos de la persona o entidad interesada**

NAN/IFK / DNI/CIF ..........................................................................................................................................

Abizenak eta Izena/Sozietate-izena / Apellidos y nombre/Razón social ......................................................................

**Banku datuak / Datos bancarios**

Bankua / Banco | | | | |

Sukurtsala / Sucursal | | | | |

K.D. / D. C. | | |

K/Korrontea / C/Corriente | | | | | | | | | | |

Kontu korrontearen jabea / Titular de la cuenta ..................................................................................................

Sólo para cuentas corrientes en el extranjero // A rellenar por el banco
Atzerriko diru-kontuetarako soilik // Bankuak bete behar

IBAN

| | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|

| Interesatuaren adostasuna<br>Conformidad de la persona interesada | Bankuaren adostasuna<br>Conformidad del banco |
|---|---|
| | |

Portugalete, ...............................................

| Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoa bete nahian jakinaratzen dizugu zeure datuak «Terceros Contabilidad» izeneko fitxategian sartu eta erabiliko ditugula. Futxategi horren ardura Portugaleteko udalari dagokio eta udal kontularitza eta diru-sarreren, gastuen, abalen eta fiantzen aurrekontua egiteko eta estatistikarako erabiltzen duela. Interesatuak datu horiek eskuratu, zuzendu, baliogabetu eta aurkatu ahal izango ditu Portugaleteko udaletxeko Erregistro Nagusian: Solar plaza z.g. 48920-Portugalete. | En cumplimiento de la Ley Orgánica 15/1999, de Protección de Datos de Carácter Personal, se le informa de que sus datos personales serán incorporados y tratados en el fichero «Terceros Contabilidad», del que es responsable el Ayuntamiento de Portugalete, cuya finalidad es realizar la contabilidad municipal y el presupuesto de ingresos, gastos, avales y fianzas y fines estadísticos. La persona interesada podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición en el Registro General del Ayuntamiento: Plaza del Solar s/n, 48920-Portugalete. |
|---|---|

Portugaleteko Udaleko diruzaintza / Tesorería del Ayuntamiento de Portugalete

eek: BAO-2020a119-(II-1853)

**DIRU-LAGUNTZA ONARTZEKO EREDUA / MODELO DE ACEPTACIÓN DE LA SUBVENCIÓN**

| | |
|---|---|
| Don/Doña / jauna/andrea | NAN / DNI |
| Honen ordezkaritzan diharduelarik / En representación de | IFZ-IFK / NIF-CIF |

HAUXE ADIERAZTEN DU / EXPONE:

| | |
|---|---|
| 1. Entitate honi jakinarazi zaiola jarraian agertzen den zenbatekodun dirulaguntza eman zaiola .................. euro.<br><br>Enpresak edo horien establezimendua martxan eta funtzionamenduan jarri izana diruz laguntzeko, negozioa Portugaleteko Historiagunean kokatuta dagoelarik.<br><br>2. Behin aztertuta diru-laguntza horren baldintzak eta eskakizunak, idazki honen bitartez onartu egiten duela dirulaguntza, horrek berez dakar guztiarekin batera, eta aldi berean konpromisoa bereganatzen duela deialdiko behar guztiak eta gainontzeko xedapen aplikagarriak beteko dituela. | 1. Que ha sido notificada a esta entidad la resolución por la que se concede una subvención por un importe total de .................. euros.<br>Para subvencionar los gastos derivados de puesta en marcha y funcionamiento de las empresas o un establecimiento de la misma, con ubicación de negocio en el Casco Histórico de Portugalete.<br><br>2. Que una vez examinadas las condiciones y requisitos de la citada subvención, por medio del presente escrito, SE ACEPTA en todos sus términos, comprometiéndose a cumplir las obligaciones establecidas y demás disposiciones que sean de aplicación. |

| | |
|---|---|
| Portugaleteko Udalak, Datu Pertsonalak Babesteko arautegi aplikagarria bete nahian eta eskubide digitalak bermatu nahian, jakinarazten du eskatzaileen datu pertsonalak automatikoki tratatuko dituela eta Portugaleteko Udalaren Informazio Sisteman sartuko dituela. Datuon tratamenduaren xedea erlazionaturik dago zuzenean laguntza-programan izapidetzeko eskabideen kudeaketarekin. Datu pertsonalak zabalkunde orokorreko hedabideetan (arautegi aplikagarriarekin bat etorriz) argitaratuko dira.<br>Halaber, Portugaleteko Udalak bere datu pertsonalak gordeko ditu harreman juridikoak iraun bitartean eta, behin harreman hori bukaturik, betebehar legezkoak betetzeko beharrezko epeetan.<br><br>Interesdunak bere datu pertsonalen irispidea, datuak zuzentzeko, ezerezteko, tratamendua mugatzeko, aurka egiteko edo transferitzeko eska dezake. Horretarako, idatzizko eskaera bidali beharko dio PORTUGALETEKO UDALARI (IFK: P4809100C; helbidea: Solar plaza z. g. 48920-Portugalete (Bizkaia). Nolanahi ere, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari ere egin diezaioke erreklamazioa (Beato Tomás de Zumárraga kalea, 71, 3, 01008-Vitoria-Gasteiz). | En cumplimiento de la normativa aplicable en materia de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, acepta que sus datos personales podrán ser objeto de tratamiento automatizado e incorporados al Sistema de Información del Ayuntamiento de Portugalete. La finalidad del tratamiento de dichos datos está directamente relacionada con la gestión de las solicitudes a tramitar en el programa de ayudas y serán publicados en medios de difusión general (en cumplimiento de la normativa aplicable).<br>Se comunica que el Ayuntamiento de Portugalete conservará sus datos personales durante la relación jurídica y, una vez finalice esta, durante los plazos necesarios para el cumplimiento de obligaciones legales.<br>Podrá solicitar el acceso a sus datos personales, la rectificación, supresión, la limitación del tratamiento, oposición o la portabilidad de sus datos personales enviando una solicitud por escrito dirigida a AYUNTAMIENTO DE PORTUGALETE., con CIF P4809100C, domicilio en la Plaza Del Solar s/n, 48920-Portugalete (Bizkaia). En todo caso, puede presentar una reclamación ante la Agencia Vasca de Protección de Datos, calle Beato Tomás de Zumárraga, 71 -3, 01008, Vitoria-Gasteiz. |

Portugalete(n), ............................................

Entitatearen ordezkaria / El/La representante de la entidad

Izenpeturik / Firmado

Izenpetzailearen izena eta kargua / Nombre y cargo de la persona firmante

eek: BAO-2020a119-(II-1853)

**DIRULAGUNTZA ORDAINTZEA ESKATZEKO EREDUA**
**MODELO DE SOLICITUD DE PAGO DE LA SUBVENCIÓN**

| | |
|---|---|
| Don/Doña / jauna/andrea | NAN / DNI |
| Honen ordezkaritzan diharduelarik / En representación de | IFZ-IFK / NIF-CIF |

HAUXE ADIERAZTEN DU / EXPONE:

1. Entitate honi jakinarazi zaiola jarraian agertzen den zenbatekodun dirulaguntza eman zaiola .................. euro.

Enpresak edo horien establezimendua martxan eta funtzionamenduan jarri izana diruz laguntzeko, negozioa Portugaleteko Historiagunean kokatuta dagoelarik. Halaber, eskatzen da ……………… euroko zenbatekodun diru-laguntzaren %90 ordaintzeko. Aldi berean, konpromisoa bereganatzen duela deialdiko behar guztiak eta gainontzeko xedapen aplikagarriak beteko dituela.

1. Que ha sido notificada a esta entidad la resolución por la que se concede una subvención por un importe total de .................. euros.
Para subvencionar los gastos derivados de puesta en marcha y funcionamiento de las empresas o un establecimiento de la misma, con ubicación de negocio en el Casco Histórico de Portugalete, por medio del presente escrito, se solicita el pago del 90% de la subvención concedida por un importe de ………………… euros; comprometiéndose a cumplir las obligaciones establecidas y demás disposiciones que sean de aplicación.

Portugaleteko Udalak, Datu Pertsonalak Babesteko arautegi aplikagarria bete nahian eta eskubide digitalak bermatu nahian, jakinarazten du eskatzaileen datu pertsonalak automatikoki tratatuko dituela eta Portugaleteko Udalaren Informazio Sisteman sartuko dituela. Datuon tratamenduaren xedea erlazionaturik dago zuzenean laguntza-programan izapidetzeko eskabideen kudeaketarekin. Datu pertsonalak zabalkunde orokorreko hedabideetan (arautegi aplikagarriarekin bat etorriz) argitaratuko dira.

Halaber, Portugaleteko Udalak bere datu pertsonalak gordeko ditu harreman juridikoak iraun bitartean eta, behin harreman hori bukaturik, betebehar legezkoak betetzeko beharrezko epeetan.

Interesdunak bere datu pertsonalen irispidea, datuak zuzentzeko, ezerezteko, tratamendua mugatzeko, aurka egiteko edo transferitzeko eska dezake. Horretarako, idatzizko eskaera bidali beharko dio PORTUGALETEKO UDALARI (IFK: P4809100C; helbidea: Solar plaza z. g. 48920-Portugalete (Bizkaia). Nolanahi ere, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari ere egin diezaioke erreklamazioa (Beato Tomás de Zumárraga kalea, 71, 3, 01008-Vitoria-Gasteiz).

En cumplimiento de la normativa aplicable en materia de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, acepta que sus datos personales podrán ser objeto de tratamiento automatizado e incorporados al Sistema de Información del Ayuntamiento de Portugalete. La finalidad del tratamiento de dichos datos está directamente relacionada con la gestión de las solicitudes a tramitar en el programa de ayudas y serán publicados en medios de difusión general (en cumplimiento de la normativa aplicable).

Se comunica que el Ayuntamiento de Portugalete conservará sus datos personales durante la relación jurídica y, una vez finalice esta, durante los plazos necesarios para el cumplimiento de obligaciones legales.

Podrá solicitar el acceso a sus datos personales, la rectificación, supresión, la limitación del tratamiento, oposición o la portabilidad de sus datos personales enviando una solicitud por escrito dirigida a AYUNTAMIENTO DE PORTUGALETE., con CIF P4809100C, domicilio en la Plaza del Solar s/n, 48920-Portugalete (Bizkaia). En todo caso, puede presentar una reclamación ante la Agencia Vasca de Protección de Datos, calle Beato Tomás de Zumárraga, 71, 3, 01008-Vitoria-Gasteiz.

Portugalete(n), ………………………………………

Entitatearen ordezkaria / El/La representante de la entidad

Izenpeturik / Firmado

Izenpetzailearen izena eta kargua / Nombre y cargo de la persona firmante

eek: BAO-2020a119-(II-1853)

**ENPRESAK EZINBESTEZ AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK**
**DOCUMENTACIÓN OBLIGATORIA A PRESENTAR POR LA EMPRESA**

**Markatu x batez ekarritako agiriak / Indique con una x la documentación que aporta**

- ☐ Lehen eranskina. Eskaera / Anexo I. Solicitud
- ☐ Enpresa zein entitateari buruzko informazioa (diruz-lagunduriko kokagunean jardueraren hasieraren egiaztagiria erantsi behar da)
  Información relativa a la empresa o entidad (aportando documento acreditativo del inicio de la actividad en la ubicación subvencionada)
- ☐ Ordezkaritzarako baimena (behar izanez gero)
  Autorización de representación (si procede)
- ☐ Zinpeko adierazpen ardurazkoa
  Declaración jurada y responsable
- ☐ Enpresa kokatzeko lokala errentamenduan edo jabetzan lortu izanaren egiaztagiriaren kopia
  Copia de la documentación acreditativa del arrendamiento o adquisición en propiedad del local para la ubicación de la empresa
- ☐ Eskatzailea pertsona fisikoa baldin bada, NANaren fotokopia
  Si la persona solicitante es una persona física, fotocopia del DNI
- ☐ Eskatzailea pertsona juridikoa bada, identifikazio fiskaleko txartelaren kopia eta eskatzailearen NAN eta ordezkaritza-boterea
  En el caso de personas jurídicas, copia de la tarjeta de identificación fiscal, junto con el DNI y poderes de representación de la persona solicitante
- ☐ Eskatzailea pertsona juridikoa bada, enpresa zein entitatea eratzeko eskrituren fotokopia, horren osteko aldaketak eta dagozkion erregistroetako inskripzioa
  En el caso de personas jurídicas, fotocopia de las escrituras de constitución de la empresa o entidad con sus posteriores modificaciones e inscripción en los registros que corresponda
- ☐ Eskatzailea nortasun juridiko propiorik gabeko sozietate zibila bada, Foru Ogasunak zigilaturiko kontratu pribatua ere aurkeztuko da
  En el caso de sociedades civiles sin personalidad jurídica propia, se incluirá el contrato privado sellado por la Hacienda Foral
- ☐ Ekonomi jardueren gaineko zergako alta-bajen ziurtagiria, Foru Ogasunak egina
  Certificado de altas y bajas en el Impuesto de Actividades Económicas, emitido por la Hacienda Foral
- ☐ Enpresa zein entitatea Gizarte Segurantzan alta emanda dagoelako agiriaren kopia
  Copia del alta de la empresa o entidad en la Seguridad Social
- ☐ Foru Ogasunaren agiri eguneratua, diru-laguntzaren enpresa zein entitate eskatzaileak tributu beharrak egunean dituela egiaztatzeko
  Certificado actualizado de la Hacienda Foral que acredite que la empresa o entidad solicitante se encuentra al corriente en sus obligaciones tributarias
- ☐ Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren agiri eguneratua, enpresa zein entitate eskatzaileak beharrak egunean dituela egiaztatzeko
  Certificado actualizado de la Tesorería General de la Seguridad Social de que la empresa o entidad se encuentra al corriente en sus obligaciones
- ☐ Datuen alta edo aldaketa izeneko agiria, enpresa zein entitate eskatzaileak eta banku zein aurrezki kutxak izenpetuta; bankuaren datuak agertzeko inprimakia da, diru-laguntzaren zenbatekoa helbideratu ahal izateko; inprimaki eredu normalizatua dago
  Documento de alta de terceros, firmado y sellado por la empresa o entidad solicitante y la entidad bancaria correspondiente (impreso de datos bancarios a efectos de domiciliación de la ayuda del modelo de solicitud normalizado)
- ☐ Dirulaguntza onartzeko eredua / Modelo de aceptación de la subvención
- ☐ Dirulaguntza ordaintzea eskatzeko eredua / Modelo de solicitud pago de la subvención

eek: BAO-2020a119-(II-1853)